

Mikel Irizarri erantzunez: euskaingintza baino euskaingintzak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusi Mikel Irizarrek baliatu zuen 20 urte baino gehiagoz iritzia idazten duen orri hau, *Elkarrekin bide bila* iritzi artikuluan errepikatzen maiatzaren 18an Hernaniko Orona Ideo eraikinean Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zuen ekitaldian zabaldu zuen mezua: “Euskararen biziberritze prozesua bidegurutzetik aurrera eramateko, elkarrekin bide bila gabiltza mota askotako erakunde eta eragileak; lankidetzak emankorrean eta berrikuntza aldarrekin”.

Bere kargutik hedabide independente honen titularra baloratzeko adina konfiantza hartu zuen, eta Oronako aurkezpenaz *Gaitzerdi* blogean egin nuen kronikaren titularra “bitxia” zela adierazi zuen, ez bide zuen ulertu titularra: *Euskaingintzaren zati bat eta Gipuzkoako Aldundiaren arteko lankidetzak*. Artikulu honekin azaldu nahi dut titularrak bigarren bueltarik gabe esaten zuena: euskaingintza ez dela bat eta bakarra, feminismoak pluralean dauden moduan euskaingintza askotarikoa dela eta politikariek argazkietan islatu nahi izaten dutena ez dela erreala, alegia, eragile batzuek ez dutela euskaingintza bere osotasunean ordezkatzen. Titularrak harago gehituko nuke, euskaingintzako hainbat eragile batus sortzen ditugun elkarte makroen ordezkariek erakunde publiko baten ebentuan hitza hartzeak ez dela euskaingintzaren oinarriarekin sakoneko elkarlan eta batasunik adierazten bere horretan.

Titularra ez zuela ulertu esan ostean, Irizarrek bota zuen titular hark “egunkari ingeles haren izenburu famatua” ekarri ziola gogora: *Mantxa itsasarteke behelaino itxiak isolatuta utzi du kontinentea*. Metaforaren mezua oso ondo ulertzen da baina ulertzen ez dudana da mezua hori zer helburu-



Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIA-KO KIDEA

Aldundiak euskaingintzako hainbat eragile konbokatuz egin duen “prozesu parte-hartzailea”-ren balorazio bilkuran agerian geratu da Irizarrek artikuluan aipatzen duen lankidetzak ez dela berak aipatu bezain “emankorra” izan. Hitz egiten hasterako irudikatu duten euskaingintzaren eta erakundearen arteko batasun hori ez dela hainbestekoa edukietan eta planteamenduetan, ez behintzat euskaingintza osoaren kasuan

rekin igorri digun. Ez dakit Irizarrek hain maite duen “euskaingintzaren eta erakunde publikoen arteko zubigintza” diskurtsoarekin oso ongi uztartzen den

aipatutako helburua, beraz, pentsatuko dut Mantxako behelaino horren ondorioz, bakoitzaren kargutik abstraituta, bakoitzaren euskaingintza-erakunde eremutik abstraituta, partekatzen ditugun prozesu eta erabakiguneetatik abstraituta, euskaltzale anai-arrebon artean egindako txiste xalo bat dela.

Mantxako itsasartearen metaforaren edukiari buruz berriz, pista bat ematen du Irizarrek adierazpen hauek noiz egin zituen jakiteak: Oronako ekitaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi urteotan euskararen alorrean markatutako estrategiak loriatzeko egin zen, legegintzaldi erdiko autoebaluaketa marko horretan. Ebentuo horretan publikoki eta hedabideen aurrean aurkeztu bazuten ere, Aldundiak euskaingintzako hainbat eragile konbokatuz egin duen “prozesu parte-hartzailea” amaitu gabe zegoen artean. Irizarrek ARGIAko artikulua idatzi zuenean ere egoera bera zen. Geroztik egin da prozesu horren balorazio bilkura, eta bertan agerian geratu da Irizarrek artikuluan aipatzen duen lankidetzak ez dela berak aipatu bezain “emankorra” izan. Hitz egiten hasterako irudikatu duten euskaingintzaren eta erakundearen arteko batasun hori ez dela hainbestekoa edukietan eta planteamenduetan, ez behintzat euskaingintza osoaren kasuan. Zorionez euskaingintza baino euskaingintzak daudenez, bakoitzak jakingo du Mantxako itsasartearen zein aldetan dagoen.

ARGIA n hankak lurtean ditugu eta badakigu non gauden. Mantxako kanalaz alde guztietakoekin harreman zintzoetara irekita jarraitzen dugu. Noski, bakoitzak den bezala errespetatu, baita egiten duen lana ere. Harreman horietatik sortuko dira partekatzen ditugun proiektu eta helburuak, baina une askotan helburu eta proiektuak ez partekatzea natural hartu behar genuke, eta une horietan berdinean harremanak elikatzen jarraitu. ■